

ERDU AGINTERAZKO ADIZKIAREN ERABILERA

Gure gramatikan nahiz hiztegian ilununetxoak izatea ez da harritzekoa. *Erdu* aginterazko adizkian badugu, nire ustez, pixka bat argitu beharrekorik. Horretarako, forma hori erabiltzen dugunok izan gaitezke egokienak.

Euskaltzaindiaren Arauak izeneko paperetan, 385. orrialdean, hiztegi batuari dagokion zerrendan honela dator: **erdu Bizk**: *erdu nire Aitaren bedeinkatuok* = 'zatoz(te)'.

Hitz hau aipatzerakoan, Garizumako eliz kanta etortzen zaie askori gogora: *Erdu pekataria, erdu eleizara, Jaungoikoaren berbea gogoz entzutera...* Baina ez da, gainerako euskalkietakoek uste dezaketenez, eliz kanta batean hor gelditu den forma zaharkitua, bizkaieradunok egunero darabilgun hitza baizik. Badakit Bizkaiko ekialdean mendebaldean eta erdialdean baino gutxiago entzuten dena, baina gutxi-asko bizkaiera egi ten den alde guztietan erabiltzen da.

OEH-ak, ohi duenez, txosten luzea dakar VI. liburukiaren amaieran hitz honetaz, baina nire iritziz, argibideak eman behararen eman beharrez, gauzak lehen baino korapilatsuago gelditzen ote diren nago. Alde batetik, XVIII. mendeaz gero bizkaierazko testuetan dokumentaturik den hitza dela dio. Gero, *erdu* forma subjektu singularrarekin ageri dela gehi entan dio, baina autore batzuek forma bera darabiltela subjektu

singularrekin nahiz pluralarekin, edota pluralarekin *erdu* eta *erdu(b)e* formen arteko alternantzia ageri dela. Honela diosku hitzez hitz:

“Emplean *erdu* tanto para el sing. como para el pl. J.J. Moguel, Añibarro, Astarloa, J.A. Moguel y E.M. Azkue. Sin embargo Astarloa, J.A. Moguel y Añibarro alternan para el pl. *erdu* y *erdu(b)e*. Siguen el sistema *erdu* (sing.) / *erdue* (pl.) Arrese Beitia, Iturzaeta, K. Enbeita y E. Bustinza. La forma *erduze* para el plural, la encontramos en F.Bilbao y S. Mitxelena”.

Añibarroren lekukotasun argirik ez dakar *erdu* subjektu pluralarekin. *Escu-liburuak* lehen argitalpenean hala dakarrela dio eta bigarrenean *erdue*. Baina hiztegi honetan datozen Añibarroren bi testuetan *erdue* baino ez da ageri pluralerako. Gero, gauzak gehiago korapilatzeke, Arana-Goirik sorturiko hitz berria aipatzen digu, *erdu* “heldu”ren sinonimo gisa, ‘acudir’, ‘venir’; ‘llegar’ itzultzen duena; eta azkenez, *erdutu* ‘partir’; ‘llegar’ itzulpenarekin, baina Azkuek, Atsularren adibideetan oinarriturik, ‘reconcentrarse’ adieraz itzultzen duela adierazten digu. Jarraian hauxe dio: “Documentado en autores labortanos del s. XVII y en Oihenart. En el s. XX, lo emplea Zinkunegi”.

Argi-izpitzoren bat igor ote genezake honen ingurura? Baiezkoan gaude. Utz ditzagun alde batera bai Arana-Goiren hitz berria delako hori, bai Atsularrek, Oihenartek eta abarrek XVII. mendean erabili zuten *erdutu* delakoa. Lot gakizkion bizkaierazko tradizioko *erdu* formari. Bizkaieradunontzat hitz garbia eta maiztasun handikoa da, batez ere mendebaldean. Ez zaigu erabileran ere zalantzarik sortzen. Subjektu plurala denean aldaera batzuk sortzen dira: *erdue* eta *erduze*, ahoz Iurreta aldean, esaterako, *erduzue* erabiltzen dute (Antton Mari Aldekoa-Otalora). Bizkaiko mendebaldean *erduze* erabiltzen da gehien bat, baina idatziz gehiago erabili izan da *erdu(b)e*. Aginterako eta lagunarteko hitza izanik, ez da harritzekoa idatziz gutxi erabili izana... Gaur eguneko bizkaieradunok, euska-

ra idatzirako, onartuko genuke subjektu pluralarekin forma batar nahiz bestea, hots, *erdue* nahiz *erduze*, baina ez *erdu*. Hau singularrerako utziko genuke soilik. Baina Euskaltzaindiak bere arauetan forma bakarra jarri du, *erdu*, bai singularrerako eta bai pluralerako... Euskaltzaindiak bizkaierazko klasikoetan oinarriturik erabakiko zuen hori. Baina hor, nire uste apalean, oker bat gertatu da. Frai Bartolome aztertzen ari nintzela oharatu nintzen horrekin. OEH-ak ez du aipatzen Frai Bartolome, *erdu* formaz diharduenean. Jakina, idazle honek inprimaturiko bere lau liburuetariko baten ere ez dakar *erdu* hitza, baina bai eskuizkribuan. Hona eskuizkribuan datozenak:

Erdu, bada, oan errazoera, neure Cristinaubac (Esk. 60). // *Erdu, bada, Cristinaubac errazoe onetara ta pensau eizu* (Esk. 68). // *Beste batzubetan esaten deutsa: Jagui zaite laster, neure maitia, ta erdu guazan ortura lorac batceera* (Esk. 87). // *Neguco otzac irago dira, zozuac eta virigarruac cantetan asi dira, erdu neure maitia, laster guazan ibiltera* (Esk. 87). // *Beste batzubetan esaten deutsa Jangoicua bere adisquidiari: Jagui zaite ta erdu neugaz ardao gozoz beteta dauan upatei edo bodega batera, janeizu ta eraizu, neure maitia, naicua eguin artian* (Esk. 87).

Beraz, Frai Bartolomerengan ez da alternantziarik J.A. Mogel eta Astarloarengan denez. Subjektua singularra izan nahiz plurala izan, *erdu* darabil beti... Baina gauza jakina da batez ere ekialdeko bizkaieraz idazten duten idazle klasikoek, aditz batzuetan, antzinako forma zaharrei eusten dietena; horrela *dozu* adizkiaren subjektua “zu” nahiz “zuek” izan daiteke. Eta ez *dozu* adizkiarena soilik, baita beste adizki batzuen ere. Mogel eta Markina aldeko euskara darabilten idazle zaharrengan ezauna da joera hori, baina Frai Bartolomerengan, joera ez eze, ia gauzarik normalentzat joenezake:

*Sinistu biar **dozu**, neure entzula **onac**, dotrina labur baten ezin erabagui leguizala, sail zabal andi oni darraicozan gauza guztiac* (Icas. III, 148). // *Bada orduban iminten **dozu***

ceuben partez umia impernuco vidian (Icas. III, 321). // Emeti ezautuco dozu, cristinaubac, Ezcontzaco Sacramentubac ce gracia emoten deutseen ezcondubai, biar dan prestaeriagaz artuten daveenian (Icas. III, 341-342). // penitencia eguiten ez badozu, guztioe era batera galduco zara (Icas. III, 99).

Hauk horrelako hainbesteren artean hartutako adibide bakan batzuk baino ez dira. Eskuizkribuko bigarren adibide hark eraman ninduen erbia eraikitza: *Erdu, bada, Cristinaubac errazoe onetara ta pensau eizu*... Beraz, idazle hauek, *dozu* ez ezik, *erdu, eizu* eta beste adizki batzuk ere horrelaxe erabiltzen dituzte, subjektu batarekin nahiz bestearekin. Horrek okerbidera eraman ditu, gaur egun, zenbait gramatikari eta lexikologo. Uste horretan gaude behintzat eta gaur egun Euskaltzaindiak bere arauetan pluralerako ere *erdu* formari eustea, ezin irentsizko gertatuko litzaiguke bizkaieradunoi.

Luis Baraiazarra